

# GORPUTZ HEZKUNTZA

## EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Leku-aldaketa eta jauziak burutzean espazioan ongi orientatzen da.
- Bere gorputza oreka egoera estatiko eta dinamikoetara egokitzen du.
- Jolasten ari denean tresnak era koordinatuan erabiltzen ditu.
- Harrera eta geldiketak hobetzen ditu.
- Luzera zein zeharkako ardatzetan (aurrera eta atzera) birak segurtasunez burutzen ditu.
- Ikaskideekin harreman egokiak ditu jolasten ari denean.
- Talde-jolasetan espazioa behar bezala erabiltzen du.
- Jolasak, arauak eta ikaskideak errespetatzen ditu.
- Jolas eta egoera berriak aurkezterakoan ulertzen ditu.
- Jolasetan gogoz eta interes handiz parte hartzen du.

## EDUKIAK

- Mugimenduak eta jauziak era koordinatu eta orekatuan.
- Tresna higikorrek jaurtiketak, paseak eta harrerak kontrola galdu gabe.
- Luzera eta zeharkako ardatzetan birak.
- Era koordinatuan eta lankidetzako jarduerak, helburua lortzeko eta taldeko jolasetan aurkarien kontra egiteko.
- Jolasetan eta kirol-jardueretan arauen eta gainerako ikaskideen onarpena.
- Erritmo-egitura errazak gorputzarekin edo instrumentuekin.
- Gorputz adierazpeneko baliabideen erabilpena, taldean inplikaturik, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko.
- Jokabide aktiboa, gorputza zainduz eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak mantenduz.

## LH 3\_ GORPUTZ HEZKUNTZA

### MEMORY

- Elikagai osasuntsuen inguruko lasterketa/memory jolasa. [Adibidea](#) [Azalpena/Materiala](#)
- Ebaluaziorako bideo bat grabatuko dute jarduera egiten duten bitartean eta ondoren, zelan sentitu diren, gustatu zaien, nekatu egin diren...azaltzen ere.

### ERRONKA: komuneko papera

- Ikasleei flexioak era ezberdin batean egiteko komuneko paperarekin [bideoa bidali](#).
- Helburua, ahalik eta roilo gehien hormaren kontra orekan kokatzea da. [Adibidea](#)
- Autoebaluaziorako [galdetegia](#) bete beharko dute ikasleek.

### TXALO PIRAMIDEA

- Irakasleak txalo piramidearen adibidea helaraziko die ikasleei. Binaka egin behar da jolas hau. Bata bestearen aurrean txalo piramidea egin: txalo bat eta mugitu, bi txalo eta mugitu, hiru txalo eta mugitu... 5era heldu eta atzera. Gero 7ra heldu eta gero berriro 5era. [Adibidea hemen](#).
- Bideo bat grabatu eta irakasleari bidali. ([Irakaslearentzako ebaluazio tresna](#))

### PUXIKA JOLASA

- Gorputzeko atal ezberdinekin eginiko sekuentzia jarraituz, puxika jolasa egin. Ezkerra eta eskina desberdintzeko eta oreka lantzeko. [Jolasaren azalpena](#).
- [Irakaslearentzako ebaluazio tresna](#).

### IMITAZIOA ETA SORMENA

- **Ispiluaren jolasa:** beste pertsona bat behar izango dute imitazio jolas hau egiteko. [Azalpena](#).
- Autoebaluaziorako [galdetegia](#) bete beharko dute.

### ERREPIKAPEN JOLASA

- Beste pertsona bat behar izango dute errepikapen jarduera hau egiteko. ([Azalpena](#))
- [Adibidea](#). [Materiala](#).
- Ebaluaziorako bideo bat grabatuko dute jarduera egiten duten bitartean eta bideo berean azalduko dute haien inpresiaok, zelan sentitu diren, gustatu zaien...